

ARTZAI – KANTACHOA.



Kantaurrea.

*Artzayak, atozte
Belen-aldera,
Jainko-Seme Jesus
Agurtatzera.*

Kantaldiak.

Millaka aingerubak
Aidira aidean,
Kanta soñu-gozoz
Lertu naiyeen;
Gloriya Jaunari
Zeru goiyeen,
Pakea gizonai
Emen lurrean.

Igarle santubak
Aurrez esana,
Errukirik Jaunak
Bete du dana,
Mesias ainbeste
Agindu zana,
Gau onetan bertan
Dator gugana.

Atozte Belena,
Atozte, artzayak,
Ikustera gauza
Arrigarriyak:
Jaungoikoa Bera
¡O mirariyak!
Gizondu dubela
Gu maita naiyak...

Jainko ta Gizona
Persona baten,
¡Ama-Donzellaren
Ugatza edaten!
Artzayak aurrera
Bera adoratzen,
Biyotzak Berari
Betiko ematen.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.